

MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Esan bezala, gure zerbitzua landa eremuan bizi direnei dago zuzendua, zehazki pertsona helduei. Hasteko, hauek, osasun aldetik geroz eta behar gehiago izaten dituzte, urteak bete ahala osasun arazoak handitzen edo gehitzen joaten baitira. Bertan, ez da osasun zentro edo farmaziarik izaten, eta edozein osasun atentzio behar badute herrira jaistera daude behartuta.

Zerbitzu guztiak inguruko herri handiagoetan egoten direnez, garraioak ere arazoak ekartzen dizkie. Gehienetan, ez dute kotxerik izaten eta garraio publikoa ez da bertara iristen. Beraz, herrira jaisteko ere laguntza behar izaten dute eta garraioa duen beste edozeinen baitan daude. Herritarrentzat, ez da batere eroso edozer gauza behar dutela ingurukoei laguntza esker joatea, eta hau despopulazioaren arrazoi handienetako bat da.

Horrez gain, goierriko landa eremu hauetan ez da ia zerbitzurik eskaintzen. Batzuetan, taberna xume bat soilik egoten da eta bertan edaria eta ogia erosteko aukera ematen dute. Beste herri batzuetan berriz, ez dago tabernarik ere. Askotan, erosketa sinple bat egiteko, inguruko herrietara jaitsi behar izatea ez da batere eroso, eta honek herritarrak haserreazten ditu. Honen ondorioz, herritarrak herri handiagoetara jaitsi behar izaten dira, eta berriro ere garraioarekin arazoak izaten dituzte.

Aipatutako guztia kontuan izanik, gure proiektuaren helburua, landa eremu hauetako pertsona heldu eta familiei laguntzea da eta horretarako, aurretik aipatu bezala, haien konfiantza lortu beharko dugu babestuta sentitu daitezen gure produktu eta zerbitzuekin.